

# **HABE, IVAP eta HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALEKO AHOZKO PROBA: ELKARRIZKETA (BAT-BATEKOA).**

## **C1 MAILA**

**IKASLEEK 10 MINUTUZ HITZ EGIN BEHAR DUTE ELKARREKIN.  
ELKARRERAGINA (INTERAKZIOA) EGON BEHAR DA HAIEN ARTEAN.  
BAKOITZAK FITXAN ESKATZEN ZAION IDEIA DEFENDATU BEHAR DU ETA  
BESTE IKASLEA KONBENTZITZEN SAIATU.  
Minutu bat irakurri eta pentsatzeko.**

# ESKOLA PUBLIKOA



Seme-alabak zein eskolatara bidaliko ditugun erabaki zaila da. Eragile asko hartu behar ditugu kontuan. Baina, agian lehenengo erabakia eskola publiko ala pribatura bidaliko ditugun izango da.

☞ Publikoan **baliabide gehiago** dituzte.

☞ **Irakasle hobeak** ari dira lanean (oposizioak gainditu behar dituzte).

☞ Edozein **gizarte klase** topa dezakegu. Gizarte berdinzaleagoa garatzeko baliagarria.

☞ **Doakoak** dira.

# ESKOLA PRIBATUA



Seme-alabak zein eskolatara bidaliko ditugun erabaki zaila da. Eragile asko hartu behar ditugu kontuan. Baina, agian lehenengo erabakia eskola publiko ala pribatura bidaliko ditugun izango da.

- ☞ **Arreta** gehiago ematen diete ikasleei.
- ☞ Gaur egun hain beharrezkoa den **disziplina** ezartzen dute.
- ☞ **Hobeto prestatuta** ateratzen dira eskolatik. **Gurasoen** pentsaera eta sinesmenekoak.
- ☞ Publikoetan ikasle txarrak pilatzen dira. Badira gurasoak **etorkinak** egoteagatik euren umeak publikora bidaltzen ez dituztenak.

# MUGAK EZABATU BEHAR DITUGU



## Elkarrizketa bideratzeko:

- ☞ Mugak oztopo besterik ez dira eta harremanak eragozten dituzte.
- ☞ Mugak jende askorentzat kartzela bihurtu dira, eta batzuetan hilobi ere bai.
- ☞ Gizaki guztiok anai-arrebak gara eta mugek banatu egiten gaituzte.
- ☞ Harresiak eraiki beharrean zubiak eraiki behar dira.
- ☞ Mugak ezabatuz gero, etortzen direnek onura asko ekarriko dizkigute: ekonomikoak, kulturalak, ...

# MUGEI EUTSI BEHAR DIEGU



## Elkarrizketa bideratzeko:

- 🗨️ Oraindik ez gaude prest mugak ezabatzeko. Gure etxean etxeak giltzez itxi egiten ditugu eta hormak eta harresiez inguratzen ditugu, babesa bilatzeko. Lurraldeetan berdin.
- 🗨️ Toki bakoitzeko hizkuntza eta kultura mantentzeko beharrezkoa. Migrazioa mugatzea eta kontrolatzea ezinbestekoa da. Mugarik gabeko migrazioa, demografia ordezkapena eragin dezake.
- 🗨️ Amerikako natiboek ez zuten mugarik euren kontinentean, eta hara nola bizi diren orain.
- 🗨️ Norbait herrialde batean sartzen denean jakin beharra dago nor den eta zertara datorren.
- 🗨️ Mugak desagerrarazi nahi badituzu, has zaitez zeure etxeko ateko sarraila kentzen.

# Etxebizitza partekatu? **BAI**



## 🍀 Elkarrizketa bideratzeko:

- **Elkarbizitza** esperientzia aberasgarria da.
- **Gastuak ere partekatzen** dira, oso garrantzitsua da.
- **Bizikidetzarako arauak** jarriz gero, ez dago arazorik.
- **Eguneroko gorabeherak partekatzeko** aukera ematen du.
- **Beste ohitura eta hizkuntza batzuk ikasteko** aukera ematen du.

# Etxebizitza partekatu? EZ



## 🍀 Elkarrizketa bideratzeko:

- Bizikidetzak **desadostasunak** sortzen ditu, pertsona bakoitzaren **izaera desberdina** da.
- Askotan **diruarekin arazoak** izaten dira, azkenean **beti batek ordaintzen** du gehiago. **Festak antolatu edo bisitak** ekartzen badira, bestearentzat dira **eragozpenak**.
- **Garbiketarekin arazo asko** sortu ohi da: zeinek, noiz, nola...
- Ez dago intimitaterik.

# ESKOLA PUBLIKOA: ONENA



Seme-alabak zein eskolatara bidaliko ditugun erabaki zaila da. Eragile asko hartu behar ditugu kontuan. Baina, agian lehenengo erabakia eskola publiko ala pribatura bidaliko ditugun izango da.

- ☞ Publikoan **administrazio publikoaren** babesak dute.
- ☞ **Irakasle gaituak** ari dira lanean (oposizioak gainditu behar dituzte).
- ☞ Edozein **gizarte klase** topa dezakegu. Gizarte berdinzaleagoa garatzeko baliagarria.
- ☞ **Doakoak** dira.




# ESKOLA PRIBATUA: ONENA



Seme-alabak zein eskolatara bidaliko ditugun erabaki zaila da. Eragile asko hartu behar ditugu kontuan. Baina, agian lehenengo erabakia eskola publiko ala pribatura bidaliko ditugun izango da.

- ☞ **Arreta** banaka emateko aukera handiagoa.
- ☞ Gaur egun hain beharrezkoa den **disziplina** ezartzen dute.
- ☞ **Hobeto prestatuta** ateratzen dira eskolatik. **Gurasoen** pentsaera eta sinesmenekoak.
- ☞ Publikoetan ikasle txarrak pilatzen dira. Badira gurasoak **etorkinak** egoteagatik euren umeak publikora bidaltzen ez dituztenak.


## HIRIAN ALA HERRIAN BIZI?



Aukeratzekotan herrian bizi nahiago duzu.

- ☞ **Lasaitasun** handiagoa dago herrian. Umeek giro hobea eta seguruago. Auzokideek elkar ezagutzen dute.
- ☞ **Harreman** gutxiago, baina **estuagoak**.
- ☞ **Kutsadura gutxiago**, naturaz gozatzeko aukera.

## HIRIAN ALA HERRIAN BIZI?



Aukeratzekotan hirian bizi nahiago duzu.

- ☛ **Zerbitzu aldetik** aukera gehiago (mediku, denda, ikastetxe, kultur eta kirola jarduerak).
- ☛ **Jende gehiago** ezagutzeko aukera.
- ☛ **Aisialdirako aukera** (zinema, antzerki).

# TATUAJERIK, BAI NOSKI!



- Gorputza apaintzeko beste baliabide bat dira, gainera, askotan politak dira eta erakargarriak izaten dira. Ligatzen lagungarriak izan daitezke.
- Aukera zabala eta era guztietakoak ditugu eskura.
- Profesional onak daude eta lana bermatuta dago.
- Gustura egon ezean, ken daitezke.
- Kultura askotan oso ohikoak dira: beraz, kultura kontua baino ez da.

# TATUAJERIK, EZ NOSKI!



- Edonon eta edozeinek egiten ditu, kontrol barik. Moda hutsa da.
- Gorputzak ezusteko erreakzioak izan ditzake, alergiak, adibidez.
- Zaharkitu eta desitxuratu egin daitezke, baina guztiz desagertu inoiz ez.
- Azala zahartzen denean, itsusi gelditzen dira.
- Damutuz gero, ez dute atzera biderik.
- Itxura txarra transmititu lezake, batez ere aurpegian eramatea. Profesionaltasun falta.  
Lanpostu batzuetarako ez da egokia.

# UNIFORMEA BAI



Uniformearen gaiak eztabaida sakona merezi du. Guraso askorentzat mesedegarria izango litzateke goizero eztabaida saihesteko, beste batzuentzat, berriz, ez luke ezer konponduko.

- Denak **berdinak** dira. Ikastola edo ikastetxearekin identifikatzeko lagundu.
- **Merkeagoa** da. **Kontsumismo** eta **markazalekeria**ri aurre egiteko hobeto.
- Umek / gazteek ez lukete hainbesteko ardurarik arroparekin.
- Ikastetxe publiko zein pribatuetan erabili daiteke.

# UNIFORMEA EZ



Uniformearen gaiak eztabaida sakona merezi du. Guraso askorentzat mesedegarria izango litzateke goizero eztabaida saihesteko, beste batzuentzat, berriz, ez luke ezer konponduko.

☞ **Maila sozialaren** adierazlea da, beraz desberdintasunak sustatzen ditu.

Eskola elitistek erabiltzen dute. Neskei gonak ezartzen zaizkie.

☞ Umek **ez** daukate aukeratzeko **autonomiarik**. Nortasuna galtzen dute.

☞ Nahiko **garestiak** izaten dira.

Azterketarako trikimailuak: euskarag**ara**.net

C1 MAILA. ELKARRIZKETA, BAT-BATEKOAK